OIARTZUNGO UDALA

**V ERANSKINA- OIARTZUNGO UDAL KIROL INSTALAZIOEN KONTRATAZIORAKO USTIAPEN EKONOMIKOAREN BIDERAGARRITASUN AZTERKETA.**

1. **Sarrera**
2. **Aurreko prestazioen ustiapen emaitza**
3. **2021eko 1. hiruhilekoan kirol jardueraren bilakaera**
4. **Kontratu berriko hobekuntzak**
5. **Oinarrizko ustiapen kontua eta udal konpentsazioa 2022rako**
6. **Kontratuaren iraupeneko proiekzioa**
7. **Ondorioak**

## 1. Sarrera

Oiartzungo Udalak sinatua duen kirol instalakuntzen kudeaketa kontratua 2021eko abenduaren 31n amaitzen dela ikusita, abian jarri du prozesua kontratazio berria bideratzeko.
Kontratazio berri honen pleguak prestatzerakoan datu ekonomikoen azterketa eta ustiapen ekonomikoaren bideragarritasuna aztertzea atal garrantzitsua da. Kontratu berriko ustiapen ekononikoaren bideragarritasuna aztertzeko ezinbestekoa da aldez aurretik datu ekonomikoen azterketa egokia egitea.
Datu ekonomikoen azterketan aurreko kontratuan izandako datu ekonomikoak ditugu abiapuntu. Baina COVID-19ak kirol jardueraren jeitsiera baldintzatu du eta azken honek kirol instalazioen datu ekonomikoengan eragin nabaria izan du. Ondorioz, aurreko kontratuaren datuetan desberdindu egin beharko litzateke 2018 eta 2019an izandako datu ekonomikoak eta 2020 eta 2021ean izandakoak.
Ustiapen ekonomikoaren bideragarritasun azterketa ahal den zuzenena egin nahian, Oiartzungo Udalak Avento Consultoria, S.L. enpresa kontratatu du instalakuntzen azterketa ekonomikoa egiteko. Azterketa horretatik abiatuta ustiapen ekonomikoaren bideragarritasun azterketa fidagarriagoa lortu nahi du udalak.

Datu ekonomikoen azterketa bost zatitan banatuko da:
1.- Ustiapen kontuaren azterketa: 2018-2020 ustiapen kontuko partidek izan duten bilakaeraren azterketa, alegia.
2.- 2021eko 1. hiruhileko kirol jardueraren bilakaera aztertu.
3.- Kontratu berrian sartu nahi diren hobekuntzen balorazioa.
4.- Oinarrizko urteko ustiapen kontua eta udal konpentsazioa finkatu 2022 urterako.
5.- Kontratuaren iraupeneko proiekzio bat egin 2022-25 urteetan ustiapen kontuak izan dezakeen bilaera zehaztuz.

## 2. Aurreko prestazioen ustiapen emaitza

Aurreko prestazioak baloratzeko garaian, amaitzear dagoen kontratuan izandako emaitzak hartu dira kontuan. 2018-2020 epealdian gaur egungo esleipendunak bidalitako ustiapen kontuetatik abiatu dugu azterketa. Datorren kontratuari begira kontuan hartu diren gastuak, justifikatuak geratu direnak izan dira. Ez dira kontuan hartu epealdi horretan justifikatutako inbertsioak, ez direlako kontratu berrian sartuko. Kontratu berrian udalaren kargu geratuko dira egin beharreko inbertsioak.
Lehen aipatu bezala 2020ko datu ekonomikoak oso desberdinak dira 2018 eta 2019 urteekin alderatzen baditugu. Diferentziak batipat dirusarreretan daude. Kiroldegia itxia egoteak eragin handia izan du dirusarreren murrizketan, horregatik 2020 datuek distorsionatzen dute edozein azterketa ekonomikoa.

## 3. 2021eko 1. hiruhilekoan kirol jardueraren bilakaera

Kontratu berrian kirol instalakuntzen bideragarritasun ekonomikoa egiteko, 2018-2020ko datu ekonomikoak zuzenean trasladatuz gero, kontratu berriko azterketa ez litzateke zuzenegia izango, izan ere, ez-ohiko urteko batengatik baldintzatua egongo litzatekeelako. Nahiz eta oraindik pandemia egoeran egon 2021ean, kirol instalakuntzek 2020an jasan zuten itxiera eta aforo baldintzak ez dira gaur egungoak.
Hori 2021eko 1. hiruhilekoari dagokion kirol instalazioen erabileran ikusi da, nahiz eta oraindik 2019ko zenbakietara iritsi ez, goruntz doa erabilera eta horrek ekar dezake 2021eko datu ekonomikoen bilakaera 2020ak baino dezente hobeagoak izatea.
Lan hori egin du Avento enpresak 2021 gastu eta dirusarreren proiekzioa egin du eta hori planteatuko dugu kontratu berriaren oinarrizko urtea bezala.

## 4. Kontratu berriko hobekuntzak

Gaur egun dugun kontratuaz gain Oiartzungo Udalak kontratu berrian sartu nahi dituen hobekuntzak gehitzea geratuko litzaiguke.
Egungo esleipendunak 2018-2020 epealdian aurkeztutako datuen arabera antzeman da langileak baldintza desberdinetan dituela. Subrogatutako langileei aplikatzen dion Lan-hitzarmena kontratua sinatzean aurreikusitakoa da, baina gainontzeko langileei ez die lan-hitzarmen hori aplikatzen, berritu gabe dagoelako eta bere ordez…. Aplikatzen die.
Oiartzungo Udalaren borondatea da denek baldintza berdinetan egotea eta horretarako baloratu du subrogatu gabeko langileen baldintzak subrogatutakoekin berdintzeak suposatuko lukeena. Gastu gehigarri hori 39.004,59 € litzateke.

## 5. Oinarrizko ustiapen kontua eta udal konpentsazioa 2022rako

Goian aipatutako kostuen atalari enpresaren kostuak erantsi zaizkio: gastu orokorrak %13 eta irabaziak %6.
Bi atal horiek kontutan izanik, zerbitzuaren emaitza honako hau da (BEZ gabe):

**KONTRATUAREN USTIAPEN EKONOMIKOA**

| | ZORRA | | | HARTZEKOA | | SALDOA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aventoren txostena | Hobekuntzak | GUZTIRA | Aventoren txostena | Hobekuntzak | GUZTIRA | |
| **USTIAKETA SARRERAK** | | | | | | | |
| Instalazioen ustiapena | | | | 764.082,90 | | 764.082,90 | 764.082,90 |
| Tabernaren ustiapena | | | | 73.544,29 | | 73.544,29 | 837.627,19 |
| Alokairua | | | | | | 0,00 | 837.627,19 |
| **USTIAKETA GASTUAK** | | | | | | | 837.627,19 |
| Ustiapen gastuak | 228.218,87 | | 228.218,87 | | | | 609.408,32 |
| Langile kostoa | 774.385,86 | 39.004,59 | 813.390,45 | | | | -203.982,13 |
| Tabernako ustiapen gastuak | 41.288,81 | | 41.288,81 | | | | -245.270,94 |
| Amortizazioa | | | 0,00 | | | | -245.270,94 |
| **GASTUEN BATURA** | 1.043.893,54 | | 1.082.898,13 | | | | |
| Gastu orokorrak (%13) | | | 140.776,76 | | | | -386.047,70 |
| Irabaziak (%6) | | | 64.973,89 | | | | -451.021,58 |
| **KONTRATUAREN EMAITZA** | | | **1.288.648,77** | | | **837.627,19** | **-451.021,58** |

Oiartzungo Udalak zerbitzuaren kostuak finantziatzen lagunduko du, sortzen diren diru sarrerek ordaintzen ez duten zerbitzu publiko bat emateko eginbeharra ezartzea konpentsatzeko.

Gehienezko konpentsazioa kontratu emaitzaren %56an ezarri da, gehienezko kopurua: 252.572,09 euro, gehi %21eko BEZari dagokion 53.040,14 euro, guztira **305.612,23 eurotakoa** izango delarik.

| | GASTUAK | SARRERAK | SALDOA |
|---|---|---|---|
| **KONTRATUAREN EMAITZA** | **1.288.648,77** | **837.627,19** | **-451.021,58** |

| | | |
|---|---|---|
| **UDAL KONPENTSAZIOA** | **56%** | **252.572,09** |

## 6. Kontratuaren iraupeneko proiekzioa

Dirusarreretan bi zatitan banatu dugu proiekzioa, alde batetik, lehen bi urteetan oinarrizko urteko datuak eta hauei %2ko igoera aurreikusten dugu bi urte horietarako, eta bestetik, kontratuaren azken 2 urteak Proiekzioaren azken urtean 2019ko zenbakietara iristea espero dugu eta aurreko urtea tarteko balioa
Gastuei dagokionez %2ko igoera aplikatu zaie urtetik urtera
Udal konpentsazioa finkoa izango da kontratuak irauten duen bitartean.

| | 2022 | 2023 | 2024 | 2025 |
|---|---|---|---|---|
| Dirusarrerak | 837.627,19 | 854.379,73 | 951.772,69 | 1.049.165,66 |
| Udal Konpentsazioa | 252.572,09 | 252.572,09 | 252.572,09 | 252.572,09 |
| Gastuak | 1.082.898,13 | 1.104.556,09 | 1.126.647,21 | 1.149.180,16 |
| **DIFERENTZIA** | **7.301,15** | **2.395,73** | **77.697,57** | **152.557,59** |

Kontuan izan behar da, gastu orokorrak eta enpresaren irabazia udal konpentsazioa kalkulatzeko erabili dira soilik.

## 7. Ondorioak

Aurreko analisiatik eratorritako emaitzak ikusirik eta adjudikaziodunarentzat ustiapen sarreretatik eratorritako batezbesteko errentagarritasuna ia %6an izanda, eta bestalde, Udalak eginiko konpentsazio ekonomikoa %56 kontuan hartuz, lau urtetako proiektu hau bideragarria dela kontsideratzen da.

Oiartzun, sinaduraren egunean.
Kontu-hartzailea

**Digitalki sinatua:**
**MARIA JESUS OTAEGUI IRURETA**
**2021/10/04, 10:31:33**